

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

R 2/2015 Ebazpena

13/2014 Espedientea

Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 26an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Estatuko Administrazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua ZERGAPEKO andreak (IFZ ----) erreklamatutako 2006ko ekitaldiari dagokion BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduna zehaztea da. Zerga-kontsulta hori 13/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzorde honen aurrean, eta Javier Muguruza Arrese jaunak jarduten du txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1. Arbitraje Batzordeak gatazka honen berri izan zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak igorritako 2014ko martxoaren 7ko idazkiaren bidez. Horren sarrera 2014ko martxoaren 11n erregistratu zen.

Gatazka aurkezteko idazkiaren izaera ez zuela zehazki adierazten zuen idazkian, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arbitraje Batzordeari azaltzen zion, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako erabakia betez, ZERGAPEKO andreak aurrean aurkeztutako eskaeraren izapideari buruzko espedientea bidaltzen ziola, aipatutako Auzitegiak premiatutako baldintzetan, Batzordeak zegoen eztabaida konpondu zezan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

Idazkiarekin batera, Andaluziako (Sevilla) Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2012ko apirilaren 9ko Epaiaren kopia bidali zitzaion, ZERGAPEKO andreak jarritako 20/2009 errekurtsoren autoei buruzkoa. Errekurtso hori Andaluziako Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren ebazpenaren aurkakoa zen. Bertan, honako hau adosten zen: «Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen III. Kapitulua hirugarren Atalean aurreikusitako Arbitraje Batzordeari espedientea bidaltzea, Auzitegi horrek dituen dokumentu guztiekin batera, existitzen den eztabaida konpondu dezan».

Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidea onartu zuen 2014ko uztailaren 21ean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen 2014ko abuztuaren 11ko idazkiaren bidez. Hori 2014ko irailaren 2an erregistratu zen eta, zegozkion aurrekariak eta arrazoibideak azaldu ondoren, Arbitraje Batzordeari eskatu zion ZERGAPEKOak 2006ko ekitaldian helbide fiskala Gipuzkoan ez zuela adierazten zuen ebazpena emateko. Izan ere, hala izanez gero, GFA ez litzateke eskuduna izango, ekitaldi horretan eskatutako 1. ZENBATEKOA euroko BEZ itzultzeko.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak egin zituen 2014ko abuztuaren 27ko idazkiaren bidez, eta horren aurkezpena 2014ko abuztuaren 28an erregistratu zen Posta Zerbitzuan. Bertan, zegozkion aurrekariak eta arrazoibideak azaldu ondoren, Batzordeari eskatzen zion gatazka automatikoki aurkeztutzat jotzeko eta GFAREN eskumena erabakitzeko, ZERGAPEKO andreaki zegokion 2006ko ekitaldiko 4. hiru hileko BEZ kuota itzultzeko.

Espedientea azaldu ondoren, alegazio-idazkiak aurkeztu ziren: GFAk 2014ko azaroaren 5ean prestatu zuen eta horren sarrera 2014ko azaroaren 6an

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

erregistratu zen; Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2014ko azaroaren 19an prestatu zuen, eta horren aurkezpena 2014ko azaroaren 20an erregistratu zen Posta Zerbitzuan, eta ZERGAPEKO andreak 2014ko azaroaren 6an prestatu zuen, eta egun berean erregistratu zen horren aurkezpena Posta Zerbitzuan.

2. Espedientetik honako ekintza hauek nabarmentzen dira; izan ere, esanguratsuak dira gatazka hau konpontzeko:

a) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erregistroen arabera, 1990eko azaroaren 27an, ZERGAPEKO andreak Sevillan zuen helbide fiskala, eta ez zen helbide-aldaketaren inongo seinalerik izan, 1995eko azaroaren 17an, Donostian, 1. HELBIDEAN, zuela jaso zen arte.

b) GFAn jasotzen da ZERGAPEKO andrea alta emanda egon zela JEZen 1993ko otsailaren 2tik 2005eko abenduaren 31ra arte, Donostian helbidea izanda, lehenengo 1. HELBIDEAN eta, gero, 2. HELBIDEAN.

c) 1998ko maiatzaren 14an, ZERGAPEKO andreak zentsu-aitorpenaren 036 ereduak aurkeztu zuen GFaren aurrean. Bertan, «Oharren» atalean, «ez egoiliarra, Ituna» jasotzen zen.

d) ZERGAPEKO andreak 1997 eta 2003 arteko ekitaldiei zegozkien PFEZ autolikidazioak aurkeztu zituen, biak barne, GFaren aurrean. Horien emaitza itzulera izan zen, eta GFak zegozkien kopuruak itzuli zizkion.

e) ZERGAPEKO andreak 2002 eta 2005 arteko ekitaldiei zegozkien BEZ autolikidazioak aurkeztu zituen, biak barne, GFaren aurrean, baina ez da horien emaitza jaso.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

f) 2006ko urtarrilaren 16an, ZERGAPEKO andreak bajazko zentsu-aitorpena aurkeztu zuen, eragina 2005eko abenduaren 31tik aurrera zuela.

g) 2006ko abenduaren 29an, NOTARIO notario jaunak emandako eskrituraren bidez, ZERGAPEKO andreak orubea erosi zuen Sevillan, higiezinaren sustapena garatzeko.

h) 2007ko urtarrilean, ZERGAPEKO andreak 2006ko laugarren hiruhilekoari zegokion BEZ aitorpena aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Gipuzkoako Ordezkaritzan, 1. ZENBATEKOA euro itzultzea eskatuz. Kopuru hori jasandako kuotari zegokion, aipaturako orubearen erosketan.

i) 2007ko uztailaren 2an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Gipuzkoako Ordezkaritzak eskatutako itzulera ukatzeko proposamena eman zuen. Horretarako, arrazoitzen zuen, 2006an, ZERGAPEKO andrearen negozio-zifra «zero» izan zenez, eskatutakoa itzultzeko Administrazio eskuduna bere helbide fiskalari zegokiona zela, hau da, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Gipuzkoako Ordezkaritzaren ustez, GFA.

j) 2007ko uztailaren 31n, interesdunari aipaturako hitzarmen-proposamena jakinaraztea adostu aurretik, alegazioak egin zitzaizkion, ZERGAPEKO andreak 036 ereduaren bidezko zentsu-aitorpena aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentzian, helbide fiskala Sevillara aldatu zuela jakinaraziz.

k) Aurkezpen horren ondorioz, Gipuzkoako Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzak Sevillara bidali zuen espedientea. Interesdunak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

egindako alegazioak ikusita, 2007ko azaroaren 23an, horrek ZERGAPEKO andrearen 2006ko BEZ itzultzeko eskaera gaitzestea erabaki zuen, Gipuzkoako Zerga Administrazioko Estatu Agentziako Ordezkaritzak egindako proposamena termino guztietan berretsita.

l) Erabaki horren aurka, ondoren, ZERGAPEKO andreak berraztertzeko errekurtsua, erreklamazio ekonomiko-administratiboa eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zituen. Azken hori Andaluziako JAGen (Sevilla) 2012ko apirilaren 9ko epaiaren bidez ebatzi zen. Bertan, gatazka Arbitraje Batzorde honi igortzea agindu zen; izan ere, bere ustez, hori da ebazteko erakunde eskuduna.

m) 2009ko apirilean, GFaren Ogasuneko Ikuskapena ZERGAPEKO andreak GFari helbide fiskala zuela adierazitako bi higiezinetan bertaratu zen, Gipuzkoan: Donostiako 1. HELBIDEAN eta 2. HELBIDEAN. ZERGAPEKO andrea guztiz ezezaguna zen bietan, eta lehenengoa bulego profesionala zen. Era berean, 2009ko apirilean, GFAko Ikuskapena Gipuzkoako 1. UDALERRIKO 1. BANKU erakundean irekita zuen banku-kontuan helbide gisa agertzen zen higiezinetan bertaratu zen. Hori «teleidazkarien» enpresari zegokion, eta arduradunak adierazi zuen ZERGAPEKO andreak bere gutuneriaren helbideratzea arduratu ziela, baina ez zuela bere helbidea ezagutzen.

n) 2008an, Sevillako Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritzan jarritako berraztertzeko errekurtsua gaitzesteko erabakia ZERGAPEKO andreari jakinarazten saiatu zirenean, berak adierazitako 3. HELBIDEAN, bertan ere ez zuten ezagutzen eta helbidea bulego-erakinaren moduluari zegokion.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

o) 2009ko urtarrilaren 30ean, Andaluziako JAGen (Sevilla) jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aldi berean, ZERGAPEKO andreak 2006ko laugarren hiruhilekoari zegozkion 300 eta 390 eredu en aitorpenak eta 2006ko urteko laburpena aurkeztu zituen, GFaren formularioan, Bilboko 2. BANKU ERAKUNDEAREN sukurtsalean, 1. ZENBATEKOA itzultzea eskatuz.

p) 2009ko maiatzaren 7ko erabakiaren arabera, GFAk itzultzeko eskaera gaitzetsi zuen eta, 2009ko uztailaren 23ko erabakiaren arabera, hitzarmen horren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa gaitzetsi zuen ere bai.

q) 2014ko azaroaren 6an, Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako alegazio-idazkian, BEZ itzultzeko eskubidea gogoratu (izan ere, «gehienez, 2007ko abuztuaren 1ean gauzatu behar zen hori, hortik aurrera, interes legalak sortuta»), honako hau adierazten digu: «1991tik 2012ra, etengabe bizi izan naiz Euskadin eta, zehazki, Gipuzkoan».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau modu berrian eta atipikoan sartu da Arbitraje Batzordean; izan ere, abenduaren 28ko 1760/2007 EDk onartutako Funtzionamendu Erregelamenduak ez du aurreikusten zein den epai judizialean emandako espedientearen igorpen-agindua, eta Estatuko Administrazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko eskumen-gatazka egituratzen dituen nota guztiak ditu, Arbitraje Batzordearen eskumen-eremuan guztiz sartuta.

Hain zuzen ere, espedienteak ZERGAPEKOARI 2006ko BEZ autolikidazioan eskatutako kopurua itzultzeko ezezkoa jasotzen du; izan ere, ez da ordainarazteko Administrazio eskuduntzat jotzen. Era berean, GFaren itzultzeko ezezkoa jasotzen da, horrek ere aginpiderik ez duelako.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

Gainera, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta GFAk aginpide ezako bi aitorpenak errepikatu eta arrazoitu dituzte euren alegazio-idazkietan.

2. Gatazka honen xedea azaldutako aurrekarien ondorioz gertatzen da, eta ZERGAPEKO andrearen 2006ko BEZ autolikidazioaren ondoriozko kopuruak ordainarazteko eta, behar izanez gero, itzultzeko Administrazio eskuduna Estatuko Administrazioa edo Gipuzkoako Foru Aldundia den zehaztea da.

3. Zerga Administrazioko Estatu Agentzia eta GFA bat datoz, Administrazio eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 27. Bat artikuluko Hirugarren arauan aurreikusitakoaren arabera ezarri behar denari dagokionez. Hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zen, eta honako hau xedatzen du BEZaren ordainarazpenari dagokionez:

«Aurreko urtean 7 milioi eurotik gorako eragiketa-kopurua lortu ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badute; zerga-egoitza Euskadin baldin badute, berriz, dagokien foru-aldundian».

4. Era berean, bat datoz, ZERGAPEKO andrearen helbide fiskala pertsona fisikoen helbide fiskala zehazten duten Ekonomia Itunaren arauen aplikazioaren bidez zehazteari dagokionez. Arauak honako hauek dira:

«43. artikulua. Ohiko bizilekua eta zerga-egoitza.

Lehena. Ekonomia-itun honetan xedatutakoari begira, Euskadin bizi izaten diren pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

Lehena.- Lurralde horretan zergaldiko ahalik eta egun gehien ematen dutenean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez; sortzapen egunaren bezperan amaitzen den urtebeteko egun gehien ematen dutenean, urtearen edozein egunetatik hasita zenbatuta, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziari dagokienez.

Pertsona fisikoen ohiko bizilekua, gainerako zergei dagokienez, dena delako zergaren sortzapen-egunean pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondoretarako duten ohiko egoitza bera izango da.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi batez kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

Bigarrena.- Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; leku hori zein den jakiteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondare-gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean –profesionala alde batera utzita– egotzitako oinarriak ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

Hirugarrena.- Lurralde horretan baldin badu aitortutako bere azken bizilekua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako.»

5. Ondorioz, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua arabera, gatazka honen ebazpenak ZERGAPEKO andrearen helbide fiskala zehaztea behar du, 2006. urtean.

6. Lehenik eta behin, erabaki behar da ZERGAPEKO andrearen ohiko egoitza Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluan horretarako ezarritako lehen araua aplikatuz ezarri daitekeen; hau da, 2006ko egun gehien gatazkan dauden bi Administrazioetako zer lurraldean eman dituen ikusita.

7. Pertsona bat toki jakin batean egotea askotan zuzenean frogatu ezin den ekintza materiala da, gatazka honetan gertatu bezala. Orduan, aztarnen edo susmoen bidezko frogak bilatu behar dira; horien balorazio-estandarra Prozedura Zibilaren Legearen 386.1 artikulua ezartzen du.

8. Beraz, gatazka honetan gertatzen da Administrazioek ez dutela lurralde batean edo bestean bizi izan dela susmatzeko arrazoirik ematen duen inolako frogarik eman euren alegazioetan, ZERGAPEKO andreak berak aurkeztutako aitortenez eta formularioez gain.

Egia da GFaren Ikuskapenak ZERGAPEKO andreak Gipuzkoan aitortutako helbideetara 2009an egindako bisitak dokumentatu dituela, bai eta Zerga Administrazioari ez adierazitako baina banku-erakunde bati adierazitakoa ere. Horietatik ondorioztatu zen aipatutako andrea ezezaguna zela horietan eta, kasu batean, etxebizitza ere ez zela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

Baina hori ez da lurralde erkidearen eremuan bizi izan denaren seinale, ez eta gatazkak zehazten duen 2006an bertan bizi izan denaren seinale ere.

Gainera, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak egiaztatu du, era berean, ZERGAPEKO andreak 2007an emandako Sevillako helbidean, 2006ko BEZ itzultzeko ukapen-erabakiaren aurkako berraztertze errekurtsua aurkezterakoan, ezezaguna zela ere bai, eta ez zela etxebizitza.

Beraz, espedientean ez dago 2006an ZERGAPEKO andrea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako zein GFAko lurraldean bizi izan dela susmatzeko seinalerik.

ZERGAPEKO andreak Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren zein GFaren aurrean aurkeztutako zerga- zein zentsu-aitorpenek eta idazkiek sinesgarritasun-falta argia dute bere helbide fiskalari dagokionez; izan ere, egiaztatuta dago berak aitortutako zenbait helbide fiskal ez direla etxebizitzak, bulegoak baizik.

Are gehiago, «1991tik 2012ra Euskadin eta, zehazki, Gipuzkoan etengabe bizi izan dela» esaterakoan Arbitraje Batzordearen aurrean egindako alegazioetan adierazitakoa ez dator bat bere zentsu-aitorpenekin.

Zalantzarik gabe, hori da sortutako gatazkaren jatorrian dagoen zirkunstantzia, eta ZERGAPEKO andreak ezin du hori alde batera utzi, ezta ahaztu ere, horrek eragindako kalteak bere alegazio-idazkian salatzen dituenean. Era berean, 2006ko BEZ ordainarazteko eta ebazteko Administrazio eskudunak ezin ditu alde batera utzi kasuaren zirkunstantziak, bere uzien inguruan.

2006ko egun gehien gatazkan dauden bi Administrazioetako zer lurraldean egindako egonaldia zehaztea xedatzen duen Ekonomia Itunaren 43.Bat

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

artikuluaren lehen araua aplikatuz, ZERGAPEKO andrearen ohiko egoitza zehaztu ezin denez, aipaturako manuan ezarritako bigarren araua aplikatu behar da.

9. Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluaren bigarren araua zergapekoaren interesen guneari dagokio.

Horren arabera, zergaldiko egun gehien non igaro diren zehaztu ezin denean, pertsona fisikoek euren interesen gune nagusia duten Administrazioko lurraldean izango dute euren ohiko egoitza. Hori PFEZen zerga-oinarriaren zati handiena duen lurraldea izango da, eta hori orain azaldu behar ez diren espezifikotasunen arabera kalkulatzen da.

Kasu honetan, Administrazioek eta ZERGAPEKO andreak ez dute euren alegazioetan hori adierazi eta, ondorioz, Espedienteak ez du jasotzen ZERGAPEKO andrearen PFEZen zerga-oinarriaren egituraren eta zenbatekoaren inolako xehetasunik 2006. urtean. Beraz, arau horrek ez digu balio horren ohiko egoitza zehazteko, 2006an.

10. Ondorioz, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikuluan aurreikusitako hirugarren araua aplikatu behar da, ZERGAPEKO andrearen ohiko egoitza zehazteko, 2006an.

Hirugarren arauak ezartzen du, egonaldiaren edo interesen gune nagusiaren existentziaren bidez, ohiko egoitza lurralde zehatz batean zehaztu ezin denean, hori zergapekoak PFEZerako aitortutako azken egoitzaren lurraldean ezarriko dela.

Kasu honetan, egiaztatuta dago, bi Administrazioek onartu dutelako, ZERGAPEKO andreak PFEZ aitortpenak GFAn aurkeztu zituela 1997 eta 2003

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
13/2014	R2/2015	2015-01-26	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoen helbide fiskala zehaztea

artean, biak barne (azken hori 2004an aurkeztu zen). 2004ko eta 2005eko ekitaldiei zegozkien aitortpenak ez zituen inongo Administrazioetan aurkeztu eta, ondorioz, PFEZERako aitortutako azken egoitza Gipuzkoan izan zen.

11. Hortik ondorioztatzen dugu ZERGAPEKO andrearen ohiko egoitza eta, ondorioz, helbide fiskala Gipuzkoan zegoela, Ekonomia Itunaren 43.Bat artikulua Hirugarren arauan ezarritakoaren arabera. Beraz, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua Hirugarren arauan aurreikusitakoa aplikatuz, GFari dagokio aipaturako zergapekoaren 2006ko BEZ ordainarazteko eta, izanez gero, itzultzeko eskumena.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- ZERGAPEKO andrearen helbide fiskala Gipuzkoan zegoela aitortzea 2006an. Ondorioz, GFari dagokio 2006ko BEZ likidazioa ordainaraztea eta, bere kasuan, itzultzea.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ZERGAPEKO interesdunari jakinaraztea.